



## **2018KO DEIALDIA, 3. ERANSKINA: KIROL JARDUERA BEREZIAK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK, NORGEHIAGOAKO ERREGIMENEAN.**

### **1. OINARRI ARAUTZAILEAK**

Oinarri hauei aplikatuko zaizkie irabazi asmorik gabeko klubei eta beste elkarte batzuei kirol-jarduera bereziak antolatzeko kiroleko ordenantza arautzailean (3. eranskina) egindako aldaketak, beti ere, jarduera horiek Tolosako udalerrian antolatzen baldin badira eta interesgarritzat jotzen baldin badira. Aldaketa horiek, behin betiko onarpenaren zain, 2018ko maiatzaren 29an Udal Batzarrak egindako Osoko Bilkuran onartutakoak dira.

### **2.- PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA**

Aipatutako oinarrietan arautzen diren diru-laguntzen onuradunak dira irabazi asmorik gabeko kirol arloko Tolosako klub eta elkarteak eta kirol federazio eta bestelako elkarteak, baldin eta euren helburuen artean kirolaren sustapena badago, naturan kirola, mendi jarduerak, arrantza, ehiza, zikloturismoa edota beste edozein kirol praktika, lehiaketa izaera soilik ez duten neurrian, antolatzen dituzten jardueren arabera. Hala dagokionean diru-laguntzan, pertsona fisikoek ere eskatu ahal izango dituzte, diru-laguntzaren helburu diren jardueretako edo programetako bat antolatzeko asmoa badute.

### **3.- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK**

2018. urtean, diru-laguntza horien eskaera egiteko (inprimakia) eta harekin joan behar duen dokumentazioa aurkezteko lehen eguna izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguna, eta argitaratu denetik hogeitau egunetara itxiko da epea.

Memoria eta kontu zurigarria, berriz, deialdiaren urteko urriaren 31 bitarte aurkeztu ahal izango dira.

Ezinbestekoa da eskaera (inprimaki formala) eta dokumentazio osagarriak Tolosako Udalaren erregistroan aurkeztea, ahal dela, erregistro telematiko bidez (korreo elektronikoak ez du balio eskaerak aurkezteko). Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko prozedurari 2015/39 Administrazio Prozedura Arautzen duen Legearen 16.4 artikulua xedatzen duena aplikatuko zaio.

### **4. DOKUMENTAZIOA**

Diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak dira, oro har, oinarri espezifikoetan (3. eranskina) xedatutakoak, hain zuzen ere:

- Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiria (Udalari baimena eman ez zaion kasuetan).
- Diru-laguntza eskatzen den jarduera babestuko duen erantzukizun zibileko ziurtagiria, antolatzailaren izenean.
- Dagokion bankuaren edo aurrezki-kutxaren agiria, egiaztatuko duena kirol elkarteak emandako kontu korrontea klub eskatzailearena dela (eskaera berrietan).
- Jardueraren aurrekontua, gastu eta sarrerak xehatuta.

\*Diru laguntza eskatu ahal izateko jardueraren aurrekontu gastua 1.500 € baino handiagoa izan beharko du.

Eginiko eskaeretan edo haiekin batera aurkeztutako eranskinetan akatsen bat badago, interesatuei eskatuko zaie 10 eguneko epean aurkitutako akatsak konpon ditzatela.

**Dokumentazio hori epe barruan aurkeztu ezean, diru-laguntza jasotzeko aukera galduko du eskatzaileak.** Era berean, datuak ezkutatuz gero, edo datu faltsuak emanez gero, diru-laguntzak jasotzeko aukera galduko du, eta hainbat kasutan, baita ondorengo diru-laguntzak jasotzekoa ere.

Eskaeran agertzen diren datuak ez badira behar bezala egiaztatzen, ez dituzte aintzat hartuko eskaera baloratzerakoan.

### **5.-DIRU LAGUNTZEN BANAKETARAKO IRIZPIDEAK**

Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak oinarri espezifiko hauetan (3. eranskina) xedatutakoak dira.



TOLOSAKO  
UDALA

## **6.-BALORAZIO BATZORDEA**

Eskaeren balorazioa kiroletako zuzendaritzaren lan izango da; dagokion txostena egingo du, diru laguntzen banaketaren proposamena eginez. Diru laguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan.

## **7.-DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA**

Emandako diru-laguntza kirol jarduera amaitu ondoren ordainduko da, onuradunak kontu zurigarria (KZ inprimakia) eta jardueraren memoria (A3 inprimakia) aurkeztu ondoren, beranduena ere urriaren 31rako. Kontu zurigarrian adierazitako fakturen zerrendarekin bat datozen fakturak aurkeztea beharrezkoa izango da.

Data horretarik aurrera, aurkezterakoan arrazoitu gabeko atzerapenik gertatuz gero, diru-laguntzaren onuradun izateko aukera guztiak galtzea ekarriko du.

## **8.- FINANTZIAZIOA ETA AURREKONTUA**

Baimendutako gastua, gehienez, 10.500 eurokoa da, aurrekontuko 1000.481.01.34100 kontu-sailaren kargura. Banatu beharreko kopurutik gehienez 500 euro gordeko dira trofeoetarako. Azken kopuru hori erabat banatzen ez bada, soberakoa hasierako kopuruari gehituko zaio.

## **9. JAKINARAZTEA**

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearenak, bere 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

## **10.-EBAZPENAREN EPEA**

Prozedua ebazteko epea memoriak eta kontu zurigarriak aurkeztu denetik sei hilabetetara izango da.

## **11.- BALDINTZAK EZ BETETZEA**

Ondoren aipatzen diren egoeretako bat gertatuz gero, eskatzaileak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du eta laguntza ordaindu den unetik sortutako interesa ere ordaindu beharko du:

- a) Deialdi honetan edo kontzesio-akordioak ezarri dituen epeak betetzen ez baditu.
- b) Diru-laguntza ematerakoan arrazoi gisa hartu zen helburua betetzen ez badu.
- c) Oinarri arautzaileak (3.eranskina) ezartzen dituen betebeharrak bat betetzen ez badu.

## **12.- DIRU LAGUNTZEN ARAUDI ERREGULATZAILEA**

Deialdi hau agiri honetako oinarriek zuzenduko dute, eta hemen aurreikusten ez dena azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak.

## **ESKAERA EREDUA**

Eskaera orria, memoria eta kontu zurigarriaren inprimakiak lotura honetan eskura daitezke: [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus) (udala atalean/tramiteak).